

**ARARTEKOAREN 30.URTEURRENA
30 ANIVERSARIO DEL ARARTEKO**

2019-12-09 Europa Jauregia / Palacio Europa 09-12-2019

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Ararteko jauna eta zuekin batera bertaratatuko, herri agintari eta herri ordezkariok, eta gizataldeetako ordezkariok baita Espainiako Arartekoa, jaun andreok, arratsalde on.

Zorionak eta eskerrik asko 30 urte hauetako lana, ibilbidea eta ekarpena elkartzen duen ekitaldi honetara gonbidatzeagatik.

Arartekoaren Erakundea balioetan oinarrituta dago. Aipatu dira, baina nik azpimarratu egingo nuke:

- Gertutasunaren balioa dauka. Arartekoa pertsonentzako eraikitako erakunde bat da. Pertsonengandik gertu dagoena. Entzun eta erantzun egiten duena.
- Independentziaren balioa dauka. Arartekoren ebazpenak erakunde guztien eginkizunak baldintzatzen dituzte.
- Konpromisoaren balioa dauka. Gehien behar dutenak, ahul daudenak dira Arartekoaren lehentasuna.

Gertutasuna, Independentzia, Konpromisoa dira Ararteko erakundearen oinarri sendoak. Oinarri hauen gainean, hiru hamarkada hauetan, seriotasunez eta zorroztasunez, jarrera eraikitzaile eta kritikokoaren bidez, euskal gizartearen prestigioa irabazi duzue guztiok.

El Ararteko se ha constituido en un colaborador-colaboradora crítico de la Administración para colmar las lagunas que inevitablemente se pueden producir en el sistema de garantía de los derechos de la ciudadanía. Esta es una figura clave en las democracias europeas y sigue las recomendaciones de la Comisión de Derechos Humanos de Naciones Unidas y la Conferencia Parlamentaria Europea que se celebró en Viena y que instaban a todos los países a crear un órgano que recibiese las quejas relativas al funcionamiento de la Administración pública.

Gracias al buen hacer de la institución del Ararteko, que hago extensivo a todo el personal que trabaja por y para esta Institución, habéis logrado ejercer esa

“Magistratura de persuasión” sustentada sobre la base de una autoridad adquirida por el respeto social, institucional y político.

Habéis logrado tender un puente de relación constructivo entre la sociedad y las instituciones. Habéis conseguido socializar la mejora continua, siempre en defensa y en favor de los derechos de la ciudadanía.

Desde las instituciones agradecemos esta labor porque, además de mejorar el servicio público, contribuye también a mantenernos más cerca y prestar una mejor atención a los problemas más acuciantes de las personas.

Arartekoa erakunde bat da, baina Arartekoa ere pertsonak dira. Hiru hamarkada hauetan lana egin duzuen pertsona guztiei gure esker ona!

Zuen denon izenean Ararteko guztion lana aitortuz bukatuko dut:

- Juan San Martín, gaur bere familia eta bere semea Ohier, gure artean ditugularik;
- Xabier Markiegi; Julia Hernández; Iñigo Lamarka; Mertxe Agundez; eta
- Manu Lezertua, egungo Arartekoa.

Zuei eta zuen lan talde guztiei, zorionak eta eskerrik asko!